

Uztailean, Euskal AEko hoteletako ostatu-gauak aurreko urtekoak baino % 67,0 gehiago izan dira

Jarduerarik gabeko hotel-establezimenduen ehunekoak behera egin du, eta % 10,3ra jaitsi da 2021eko uztailean

2021eko uztailean Euskal AEko hotel-establezimenduetan erregistratutako sarrerak eta ostatu-gauak 292.165 eta 568.447 izan dira, hurrenez hurren, Eustatek landutako datuen arabera. Hortaz, 2020ko uztailearekin alderatuta, hotel-sektorearen suspertzea % 62,5era iritsi da sarreraren kasuan, eta % 67,0ra ostatu-gauen kasuan.

Aurreko hilabetearekin (2021eko ekainarekin) alderatuta, berriz, sarreraren kopuruak % 69,8ko igoera izan du, eta ostatu-gauenak % 83,6koa. Beraz, Euskal AEko hotel-sektoreak jarraitu egin du azken hilabeteetan suspertzeko hartu duen bidetik.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021ko Uztaila

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/07	m/m-12 (%)	2021/07	m/m-12 (%)	2021/07	2020/07
EUSKAL AE	292.165	62,5	568.447	67,0	1,95	1,89
Estatukoak	195.796	63,8	392.367	66,0	2,00	1,98
Atzeritarrak	96.369	59,8	176.080	69,4	1,83	1,72
ARABA/ÁLAVA	43.283	94,2	76.043	88,8	1,76	1,81
Estatukoak	32.274	92,0	59.167	85,4	1,83	1,90
Atzeritarrak	11.009	101,0	16.876	101,7	1,53	1,53
Vitoria-Gasteiz	29.628	103,3	51.868	90,8	1,75	1,87
BIZKAIA	123.356	89,7	237.397	86,6	1,92	1,96
Estatukoak	84.483	75,8	165.562	71,1	1,96	2,01
Atzeritarrak	38.873	129,2	71.835	136,1	1,85	1,79
Bilbao	78.827	105,9	152.180	114,8	1,93	1,85
GIPUZKOA	125.526	35,7	255.007	47,5	2,03	1,87
Estatukoak	79.039	44,6	167.638	55,6	2,12	1,97
Atzeritarrak	46.487	22,7	87.369	34,1	1,88	1,72
Donostia / San Sebastián	73.140	31,2	155.274	47,7	2,12	1,89

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Araban, 43.283 sarrera eta 76.043 ostatu-gau erregistratu dira uztailean, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 94,2 eta % 88,8 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2021eko uztailean, sarreraren kopuruak % 89,7ko igoera izan du, eta ostatu-gauen kopuruak, berriz, % 86,6koa. Guztira, 123.356 eta 237.397 izan dira, hurrenez hurren, 2021eko uztailean. Urteetik urtera, igoera % 35,7koa izan da sarreraren kasuan, eta % 47,5koa ostatu-gauen kasuan. Gipuzkoako igoera-

tasak ulertzeko, kontuan hartu behar da, besteak beste, lurralde horretan lortu zirela daturik onenak 2020ko uztailan.

Atzeritarren sarrerak sarrera guztien % 33,0 izan dira 2021eko uztailan. Beraz, Estatuko pertsonen sarrerak % 67,0 izan dira. Era berean, ostatu-gauen kasuan, atzeritarrak % 31,0 izan dira, eta Estatuko pertsonak % 69,0. Aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, atzeritarren sarrerek eta ostatu-gauek % 59,8ko eta % 69,4ko igoera izan dute, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, aldeak daude lurralde historikoen artean. Araban, atzeritarren sarreren eta ostatu-gauen kopuruaren urtetik urterako gehikuntza % 101,0ra eta % 101,7ra iritsi da, hurrenez hurren. Bizkaian, berriz, atzeritarren sarrerek % 129,2ko igoera izan dute, eta ostatu-gauek, berriz, % 136,1ekoa. Gipuzkoan, azkenik, 2020ko uztailarekiko gehikuntzak ez dira hain handiak izan: % 22,7 atzeritarren sarreren kasuan, eta % 34,1 ostatu-gauen kasuan.

Nolanahi ere, 66 hotel-establezimendu itxita egon dira 2021eko uztailako egun guztietan (10 Araban, 26 Bizkaian eta 30 Gipuzkoan). Zifra hori aurreko hilabete (2021eko ekainean) zein aurreko urteko hilabete berean (2020ko uztailan) baino txikiagoa izan da (91 eta 109 hilabete horietan, hurrenez hurren).

Uztailan, batez besteko egonaldia 1,95 egunekoa izan da Euskal AEko hotel-establezimenduetan. 2020ko uztailan, berriz, 1,89 egunekoa izan zen. Estatuko pertsonen batez besteko egonaldia handiagoa izan da 2021eko uztailan (2,00 egun). Dena dela, urtetik urterako alderaketa eginez gero, atzeritarren batez besteko egonaldiak igoera handiagoa izan du (1,72 egun 2020ko uztailan, eta 1,83 egun 2021eko uztailan).

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021ko Uztaila

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/07	p.p.*	2021/07	p.p.*	2021/07	m/m-12 (%)	2021/07	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	57,6	15,5	63,5	15,2	104,79	22,0	66,56	60,5
ARABA/ÁLAVA	54,6	17,7	62,8	18,3	85,50	25,5	53,67	77,1
Vitoria-Gasteiz	53,9	16,6	64,0	15,6	72,23	22,8	46,21	62,3
BIZKAIA	51,8	15,7	57,9	14,5	83,49	17,9	48,31	57,2
Bilbao	53,7	19,4	58,5	18,1	85,99	17,5	50,32	70,1
GIPUZKOA	65,4	15,7	70,4	16,0	131,32	27,9	92,43	65,3
Donostia / San Sebastián	69,2	16,0	72,0	16,2	161,87	33,6	116,53	72,3

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2021eko uztailan jardun duten hotel-establezimenduen okupazio-mailak aurreko urteko hilabete berean izandakoak baino handiagoak izan dira, bai plazei, bai eskainitako gelei dagokienez. Igoera portzentajeazko 15,5 puntura iritsi da plazen arabeko okupazio-mailan, eta 15,2 puntura gelen arabeko okupazio-mailan.

Plazen arabeko okupazio-maila % 51,8ra iritsi da Bizkaian, % 54,6ra Araban, eta % 65,4ra Gipuzkoan. Era berean, gelen arabeko okupazioa % 57,9ra igo da Bizkaian, % 62,8ra Araban, eta % 70,4ra Gipuzkoan.

Uztailan, plazen arabeko okupazio-mailarik handiena izan duen hiriburua Donostia da (% 69,2), eta, haren atzetik, Gasteiz eta Bilbo kokatu dira (% 53,9 eta % 53,7, hurrenez hurren). Gelen arabeko okupazio-maila ere handiagoa izan da Donostian (% 72,0) Gasteizen eta Bilbon baino (% 64,0 eta % 58,5, hurrenez hurren).

Sektoreko errentagarritasun-adierazleek goranzko joerarekin jarraitu dute. ADRa (eguneko batez besteko tarifa) 104,79 euro izan da uztailean, hau da, aurreko urteko uztailean baino % 22,0 handiagoa. ADRaren igoera orokorra izan da lurralde historiko guztietan. Zehazki, 131,32 euro izan da Gipuzkoan (161,87 euro Donostian), 85,50 euro Araban (72,23 euro Gasteizen) eta 83,49 euro Bizkaian (85,99 euro Bilbon).

Okupazio handiagoaren ondorioz, RevPar-ak (gela eskuragarriko diru-sarrerak) % 60,5eko urtetik urterako igoera izan du. Zehazki, Euskal AE osoan, 41,48 euro izan zen 2020ko uztailean, eta 66,56 eurora igo da 2021eko uztailean.

Aurreko hilabetearekin (2021eko ekainarekin) alderatuta, ADRak % 21,2ko gorakada izan du, eta RevPar-ak, berriz, % 78,6koa.

Hileko egun guztietan **itxita egon diren hotel-establezimenduen** ehunekoaren bilakaerak agerian utzi du gero eta txikiagoa dela COVID19ari aurre egiteko murrizketek hotel-sektorean duten eragina. 2021eko uztailean, Euskal AEko hotel-establezimenduen % 10,3 egon dira itxita hilabeteko egun guztietan. 2020ko uztailean, berriz, % 17,6 izan ziren, eta 2021eko ekainean % 14,3.

Lurralde Historikoei erreparatuta, Araban hotel-establezimenduen % 13,3 egon dira itxita 2021eko uztail osoan, Bizkaian % 10,5 eta Gipuzkoan % 9,4.

Informazio-oharra. Hotelen ETHIaren estaldura **% 86,3koa** izan da uztailean. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62